

19 ARABA

Sobrón-eko iturburu termala



Ingurumen-garrantzia

Sobrón ibaiaren iturburu goiko Kretazikoko kareharrizko egitura batean dago, Sobrón-eko antiklinala mozten duen faila baten gainean. XIX. mendean, Sobróneko bainuetxe zaharrak erabili zituen hango urak.

Interes handiko toki honetan arrain mota asko ikustea dugu: zaparda (*Squalius pyrenaicus*), mazkar arantxaduna (*Cobitis calderoni*), ibai-kabuxa eta (*Salaria fluviatilis*), besteak beste.

Ugaztunak ere aurkituko ditugu, hala nola Ur-ipurtatsa (*Mustela lutreola*) eta ugaraba (*Lutra lutra*).

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 3,9 km



Ordu 1 eta 15 min.



Udalerria:
Lantarón

Hurbileko herria:
Sobrón



Ibaia:
Ebro



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



529 m



120 m



481 m



81 m



Sobrón-eko iturburu termala



Non dagoen eta nola heldu

Sobrón-eko iturburu termala Arabako Lurralde Historikoaren mendebaldeko muturrean dago Arabako ibarrak eskualdean, Sobrón herriko lurretan, Lantaron udalerrian. Hara heltzeko, A-2122 udal-errepidea hartuko dugu.

Ibilbidea ibaiaren ezker aldean dagoen aparkalekutik hasiko dugu. Bertara heltzeko, errepideko bidebanatzea hartu, hotelen parean. Ondoren, ibaiaren ezker aldetik GR-99 Ebroko Natura Bidea hartuko dugu harrizko zubi batera heldu arte. Ezker aldetik jarraituko dugu, eta itxitura metaliko bat gurutzatu ondoren, iturburura eramango gaitu hirurogei metrora ezkerretara biratzen duen bidexka batek.

Handik, itzuliko bidea hartuko dugu harrizko zubiraino, XX. mende hasierakoa.

Ezkerretara hartuta, GR-99 jarraituko dugu ibaiaren eskuin aldetik Soportillako iturburura heldu arte.

Sobrón urtegiaren uretan behera, ibaiaren ezker ibarrean, atsedan eremu bat aurkituko dugu.

Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia

Deskargatu
ibilbidea:



KML




GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc



Sobrón-eko iturburu termala

